SEASKAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA GAURKOZEKO GOGOETA

Kontestua

Seaska eta bere baitan biltzen diren ikastolak hezkuntza eredu berezi batek ezaugarritzen ditu. Izan ere, Ikastolak burasoek eta jendarte zibilak une jakin batean eta egoera jakin bati erantzuteko sortu proiektuak dira. Eta egun ere ikastolen sortzearen iturburuan aurkitzen ziren arrazoinek zentzu osoa izaten jarraitzen dute.

Ikastolak hezkuntza eta hizkuntza uztartzeko hautuaren emaitza dira. Eta egun ere, hezkuntza eta hizkuntza elgarri josiak dira, batak bestea indartzen baitu.

Bost hamarkadako ibilbide oparoa du Seaskak. Tarte horretan, mugarri sendoak ezarri ditu hezkuntzan eta irakaskuntzan. Ez gira beraz hutsetik abiatzen.

Egun indarrean den Seaskaren Hezkuntza proiektua 1995ean adosturikoa da. Geroztik ekarpen ezberdinak erantsi zaizkio, errate baterako hizkuntza xarta ala elkarbizitza plana. Haatik, Seaskak egin duen bidea eta jendartean gertatu diren sakoneko aldaketak aintzat hartuz, Hezkuntza xedea eguneratzeko beharra agerikoa da. Garai eta erronka berrietara egokitu behar dugu.

2021eko ekainan bildu zen Ikastolen Kontseiluak hezkuntza erdigunean ezarri eta Hezkuntza Proiektua berrikusteko beharra azpimarratu ondotik, 2021eko udazkenean Seaskaren hezkuntza zuzendaritzak Hezkuntza Proiektua berrikusteko gogoetaldia abiatzea proposatu zuen.

Hezkuntza Proiektua eguneratzeko gogoetaldiaren nondik norakoa

1995eko Hezkuntza Proiektuaren bururapenean, egin beharreko bideaz egiten zen hausnarketari erantzun nahi izan diogu azken hilabeteetan abiatu dugun lanarekin. Gisa horretan zehazten ziren aurrerabidean egin beharreko urratsak 1995eko dokumentoan :

« Dokumentu honetan finkatu diren norabide eta helburu orokorretan oinarrituz, ikastola bakoitzak, ondotik, bere proiektu berezia egin behar duenez gero, hura egin ahal izateko, gogoeta eta formakuntza aro batean sartzea baidezpadakoa izanen zaigu.
Gogoetak, lehenik balore pertsonal, sozial, politiko, kultural eta abarrez… bete-beteak dauden zenbait « hitzen » definitzeko, hots : euskal nortasuna, autonomia, erantzule, herritar eta abar… bezalako hitzak definitu eta azaldu ondoren, bideratzen ditugun praktiken erkatzeko, trukatzeko, eztabadatzeko, teorizatzeko ».

Lehen denbora batean, Seaska hezkuntza komunitatearen sail ezberdinetan (Lehen eta bigarren mailako zuzendariak, Hezkuntza Taldea, Batzorde Eragilea, Ikasleak, Ikastolen Kontseilu irekia) AMIA (Aukera, Mehatxu, Indargune, Ahulgune) ariketak egin ditugu, diagnostiko partekatu bat osatzeko gisan.

Ondotik, Ikastoletan Hezkuntza Taldeak sortzeko eta indartzeko gida lerroak landu eta ikastola guztietara igorri dugu. Izan ere, Hezkuntza Proiektua gaurkotzeko ezinbestean Ikastolen parte hartze zuzena behar dugu.

Diagnostiko horretatik abiatuz, Seaskaren Hezkuntza proiektuaren oinarriak zehazteko gogoeta abiatu dugu. Gogoeta horren gauzatzeko, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak *euskal kurrikulumaren* baitan pertsona eredua zehazteko baliatu duen tresna hartu dugu oinarri gisa, eta gure beharretara egokitu dugu. Tresna bera bezain inportantea iruditzen zaigu, Ikastoletan eta Seaskaren hezkuntza komunitate osoan gogoeta abiaraztea, hezkuntza erdigunean ezarriz.

Eskuen artean duzuen taula, Seaskaren oinarrien eta definizioen zehazteko Pedagogia Kontseiluan eta Ikastoletako Hezkuntza Taldeetan egin dugun lanaren emaitza da. Oinarri bat besterik ez da, urratsak emaiten joan ahala berrikusi eta zehaztu beharko duguna.

Ez dugu deus asmatu ariketa honetan. Seaskak eta Ikastolek haurraren formakuntzan pertsona gisa dugun ardura azpimarratzen dugu. Izan ere, ikastolak haurrari eskaini behar dizkio arlo guztietan garatzeko baldintzak : hala nola, jendartearen baitan pertsona errespontsablea, sortzailea, euskalduna izan dadin, bere baitan sinesten duen pertsona, bere hautuak egiteko gaitasuna duena eta besteak errespetatuko dituena.

Ondoko urratsak

1. Seaskaren Hezkuntza Proiektuaren oinarriak adostu ondoan, 2022/23 ikasturte hastapenean oinarri horiek ama ikastolatik lizeora zikloz ziklo nola deklinatuko ditugun lantzen hasiko gira. Lehen eta bigarren mailako irakasleekin landuko dugu, zuzendarien bilkuretan.

2. Bestalde, Ikastoletako hezkuntza proiektuak zehazteko eta gauzatzeko helburuarekin Hezkunta Taldeak (buraso+langile+irakasle) sortzeko eta dinamizatzeko urrats berriak emanen ditugu.

3. Eginen diren zehaztapen eta ekarpenetan bermatuz eta 95eko Proiektutik abiatuz Seaskaren Hezkuntza Proiektu gaurkotuaren idazketa lanari lotuko gatzaizkio, 2022/23 ikasturte ondarreko Ikastolen Kontseiluan bozkara aurkeztua izan dadin.

4. Denbora tarte horretan, Formakuntza jarraikia eraikitzen hasi eta ikastoletan gogoeta eta esperimentazio denborak tartekatuko ditugu.

5. Azkenik, ikastoletan gauzatuko diren urratsen neurtzeko ebaluaketa tresna bat xutik emanen dugu.